

Eskualdeko 338 korrikalarik amaitu dute Behobia-Donostia

TOLOSALDEA ▶ Hassan Ait Chaou billabonatarra izan da gizonezkoetan lehena, eta Elena Huarte ikaztegiatarra emakumezkoetan ▶ 2-3



10.875 korrikalarik hartu zuten parte igandean Behobia-Donostia lasterketan, inoizko kopururik altuena. GOIATZ LABANDIBAR / OARSOALDEKO HITZA

ADUNA ▶

Egitarau zabalarekin, abian da Kultur Astea

Gaur iluntzean, kirolarien arteko solasaldia ▶ 6

TOLOSALDEA ▶



BERTSOZALE ELKARTEA

Mendiluze: «Finala, pauso bat gertuago»

Finalurrekoen lehen itzulia amaituta, ezustekorako tartea badagoela dio ▶ 5

TOLOSA ▶

Etzi abiatuko da Tolosako Babarrunaren Astea, ostalarien arteko pintxo lehiaketarekin

Igandera bitarte askotariko ekitaldiak antolatu dituzte; enkantean jasotako dirua Malirako izango da ▶ 4

**Errota
taberna**

**Gaur inaugurazioa
19:30tan**

Santa Maria, 1 • Tolosa



BABARRUNAREN ASTEA ▶

EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

ETZI, OSTEGUNA

Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketa. Ostalariek barran izango dituzte pintxoak. Tolosako hainbat elkartetako ordezkari osatutako epaimahaia 19:00etan ekingo diote lanari.

AZAROAK 19, LARUNBATA**Babarrun krema banaketa.**

Tolosako ostalariek krema emango dute. Ondoren, 15 tarbenarik bazkaria egingo dute.

Azoka berezia. Triangulo plazan 20 saltzaile inguruk

babarruna eta bestelako produktuak izango dituzte salgai.

XVIII. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa.

Trianguloan 20 ekoizlek hartuko dute parte. 13:00etan emango dute epaia.

Babarrun irabazlearen lakari bat enkantean.

Lortutako dirua Malin nekazaritza eskola bat marxtan jartzeko erabiliko da. Iaz 1.100 euroko kopurua lortu zen.

Babarrun eta sagardo dastaketa.

Babarrunaren Kofradiak 25 kilo babarrun

banatuko ditu, 12:00etatik aurrera, Trianguloan.

Tolosaldeko sagardogileek kupela jarriko dute.

Samaniegoko ikasleen kantua. Babarrunari egindako kanta abestuko dute, Triangulo plazan, 11:00etan.

Herriko ikasleen bertso emanaldia. Hirukideko, Laskoraingo eta Samaiegoko LH6ko 11 gelatako ikasleek ordu erdiz eskainiko dute, Trianguloan, 12:30ean.

Txapela nork ondoen jantzi VII. Lehiaketa. 11:30ean Arostegieta kaleko Txinparta

elkartean. 13:00etan emango dute irabazlearen izena.

'Txuri beltz' emanaldia. Etxeko txikieneztat, Berdura plazan, 17:00etan, Kixka taldearen eskutik.

Udaberri dantza taldearen eta Esbart San Marti taldearen emanaldia. Beotibar pilotalekuan, afalostean.

AZAROAK 20, IGANDEA**VIII. Artzain Txakur**

Txapelketa. Iurramendiko belazetan, 10:30ean.

Urrezko harri-jasotzaile eta

aizkolarien Eguna. Beotibar pilotalekuan izango da, 12:00etan. Euskal Teletokuzuzenean emitituko duen saioan 50 aizkolaria eta 15 harri-jasotzaile izango dira.

XIX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa. Gure Kaiola elkarteak antolatuta, Ferialekuan 20 bikotek hartuko dute parte lehiaketa gastronomiko honetan. Aurreko eguneko babarrun irabazlea maneatu dute eta nork egiten dituen ondoen. Emaizta 13:00etan jakinaraziko dute; ondoren, herri bazkaria izango da Ferialekuan.

Gure urre beltzaren astea

Etzi hasi eta igandera bitarte askotariko ekitaldiak antolatu dituzte gurean, Babarrunaren Astearen harira; atzo egin zuten aurkezpen ekitaldia Donostian

NOELIA LATABURU

Guztien ahotan izango dira datozen egunotan Tolosako babarrun goxo eta ezagunak. Hauek dastatzeko, maneatzeko, hautatzeko edota erosteko aukera izango da. Izan ere, etzi hasi eta igandera bitarte, ekitaldi mordo antolatu dituzte Babarrunaren Astearen harira. «Urre zen antzina eta urre etorkizunean». Hitz hauek erabili zituen atzo, Donostian, Babarrunaren Astearen aurkezpenean, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, maisutasunez, gure gastronomiaren ikur den jakia definitzeko. Tolosako Babarrunaren Astearen eta babarrunaren inguruan ospatuko diren aurkezpen ekitaldi honetan izan ziren, halaber, Rafael Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua, Josemi Gomez Elosegi Tolosako Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu zinegotzia eta Joxean Larrañaga Villabonako parrokoa. Jendartean ere aurkitzen ziren Mari Karmen Iradi Tolo-



Ezker-eskuin: Josemi Gomez Elosegi, Rafael Uribarren, Jokin Bildarratz eta Joxean Larrañaga. NOELIA LATABURU

sako Babarrunaren Elkarteko presidentea Josetxo Gabarian Gure Kaiola elkartekoa, Jose Ignacio Telleria Tolosako Babarrunaren Kofradiko presidentea, Roberto Ruiz sukaldaria, Aitor Riaño 2004ko Tolosako Babarrunaren pintxo lehiaketako irabazlea, Iñaki Vi-

ñaspere 2004ko babarrun irabazlearen lekari enkanteko eroslea, eta Martin Zabala Tolosaldeko sagardogilea.

Azken urteetan goranzko joera izan duen produktua da babarruna. «Ohere handia da babarruna munduko txokotan topatzea», azaldu zuen al-

kateak. 1994ean sortutako Babarrunaren elkartearentzat ere izan zituen hitz beroak, «bere lanari esker» lortu baita kalitatea hobetzea. Irailean guztiak San Isidro inguruan ereindako babarrunak biltzen ikusi genituen. Lekaren barruan lehortzen utzi ondoren puntu egokia jaso dute orain. Eta orain da, hain zuzen, emaitza horiek jendaurrean aurkezteko garaia. Joxean Gomezek guztien lana aipatu eta eskertu nahi izan zuen eta Rafael Uribarrenek, bere aldetik, enkanteko dirua hirugarren mundura zabaltzea «pozgarria» dela aipatu zuen, besteak beste.

Enkanteko dirua, Malira

Larunbatean, babarrun irabazlearen lakari bat jarriko da enkantean. Iaz Sagardi elkarteko Iñaki Vifiñasprek 1.100 euro ordaindu zituen. Diru horrekin, Maliko proiektu bat lagundu zen, zuhaitzak landatzeko inbertituz.

Aurten Afrika Elkartasuna taldera bideratuko da lortutako dirua, Malin nekazaritza eskola bat marxtan jartzeko erabiliko dutena. Helburuetako bat lanpostuak sortzea da. gazteek jateko aukera izan dezaten, hauek herrietan geratzeko aukera izan dezaten, herriak garatzen joan daitezten, gazteek herriak garatzeko gogoa izan dezaten eta ez emigratzeko.

Afrika Elkartasuna 1991an sortu zuen lagun talde batek. Kontinente behartsuena izanik, Afrika aukeratu zuten. Xede nagusien artean, ikasketak ordaintzerik ez duten gazteei beka ematea. Hiru bidez egin dute bidaiia Malira dirua eraman eta proiektu berriak ekartzera, 1998an, 2001ean eta aurten. ◀

tabernariak, ostalariak, nekazariak, umeak eta, batik batik, herriarrak izango dira protagonista. Ekoizleen Lehiaketan Roberto Ruiz, Angel Oruesagasti eta Felix Garrido sukaldariak prestatuko dituzte babarrunak. 08:00etan sutan jarri eta 11:30etan prest izango dituzte Epaimahaia sukaldari eta kritikako gastronomikoz osatuko da. Babarrunaren hiriburura gerturatzeak aukerarik ez galdu, bada.

hilberriak ▶



Jose Ignacio Rodriguez Montoya

Bat-bateko heriotzak
Dakarkigun samina
Lagun gaitzala elkartasunak
Garaitzen ezina



Maite bere emaztearen lankideek

URRETXU-ZUMARRAGA, 2005eko azaroaren 15a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio berogatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

BERTSOALRI TXAPELKETA NAGUSIA ▶

Lehen itzuliaren bukaerakoan Mendiluzek lortu ditu puntu gehien: «Pauso bat gertuago»

Bigarren itzulia hasteko zain, Amets Arzallusek ditu puntu gehien; Mendiluze bera eta Agirre aurreneko seikotean daude, eta Irazu hamalagarren

JAIONE ASTIBIA

Herenegun egin zuten Gazteizko Mendizorrotzan Bertsolari Txapelketa Nagusiko hirugarren finalaurreko saioa, eta Aitor Mendiluzek eskuratu zituen, azkenik, saioko punturik gehien: 763; Sustrai Colinak eta Arkaitz Goikoetxeak jarraitu zioten, 725,5 eta 724 punturekin, hurrenez hurren. Ekaitz Goikoetxea, Iñigo Mantzisor eta Etxahun Lekue gelditu ziren ondorengoak.

Iruran bizi den Mendiluze andoaindarrak atzo bertan HITZARI adierazi zionez, «saio erregularra» egin zuen, «bertsotan ondo arituz eta hutsik egin gabe», zehaztu zuenez. Baina bai berak eta baita lagunak ere «gehiago eman» zezaketen sentsazioa gelditu omen zitzaion saio bukaeran; halaxe aitortu zuen berak, bertan, kiroldegian, bizitu zuten giroa ere aitatu: «Guk askoz gehiago eman genezakeen, baina giroa hotza zegoen, jendea hotz zegoen, ez zuen erantzuten; guk ere ez genuen gehiegi berotu: tarteka, bertso onak bota genituen, baina... Saioa hotz samarra izan zela iruditu zitzaidan».

Bere lanari zegokionez, «kartzelako gaien, sei puntuko motzean aritu nintzen gustoen», baieztatu zuen. Izan ere, «urteen burura erizain lanean ari den zahar etxera, bera tikituan zaindu izan zuen andrea ekarri dute», Mendiluze erizaina izanda, ikusgarritzko bertsoak bota zituen, Lekue *amona* lagun.

Bigarren itzulira begira

Kontuak kontu, saio hau izan zen, gainera, lehen itzuliko azkena; horrela, parte hartzen ari diren bertsolari guztiek saio bana egin dute dagoeneko, eta bakoitzak badu bere puntuaketa: Amets Arzallus dago aurreneko, 788,5 punturekin; Iturriaga bigarren, 774rekin; hurrena Igor Elortza, puntu eta erdira; laugarren dago Jon Maia, 769rekin; eta bosgarren eta seigarren dira Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre, 763 eta



Aitor Mendiluze kantari, Sustrai Kolina ondoan duela, Gasteizko saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

Final egunerako txartelak

Abenduaren 18an egingen dute Bertsolari Txapelketako Finala BECen, Barakaldon, eta bertara joateko sarrerak ez ezik, nahi duenarentzat garraioa eta otordua ere antolatuko ditu Bertsotzale Elkarteak, tokian tokiko bertsotzaleekin elkarlanean. Horrela, saiorako sarrerak (25 eurotan), zein bazkariarako txartelak (18 eurotan) ere eskuragarri daude dagoeneko, besteak beste, Bertsotzale Elkartearen Tolosako egoitzan, HITZAKO Tolosako erredakzioan bertan edota Leitza-

ko Maimur liburudendan. Garraioari dagokionez, Tolosatik autobusa irtegarria da, San Frantzisko elizaren aurrealdeko geltokitik, 08:10ean; Leitzatik, 08:40ean. Txartelak eskuragarri daude lehen aitatu-tako lekuetan. Honen harira, Amezketatik jakinarazi dute, handik bertatik autobusa antolatzekeotan dira, «jendeak izena ematen badu». Amezketako ohiko tabernetan egin daiteke izen-ematea, 9 euro ordainduta, abenduaren 11 arteko epean. ◀

739,5ekin, hurrenez hurren. Hauexek izanen lirake, hain zuzen ere, gaur egun finalera igaroko lirakeen bertsolariak, baina oraindik bigarren itzulari aurre egin beharrean dira, hauek eta gainerako hamabi bertsolariak ere; hil honen 26koak, 27koak eta abenduaren 4koak igarota, orduan argitu dira kontuak.

Bitartean, aurreneko itzulia

SAILKAPENAK ▶

GASTEIZKO SAIOA

Izena	puntuak
1. Aitor Mendiluze	763,0
2. Sustrai Colina	725,5
3. Arkaitz Goikoetxea	724,0
4. Ekaitz Goikoetxea	712,0
5. Iñigo Mantzisor <i>Mantxi</i>	689,0
6. Etxahun Lekue	680,5

LEHENENGO ITZULI OSOKOA

Izena	puntuak
1. Amets Arzallus	788,5
2. Unai Iturriaga	774,0
3. Igor Elortza	772,5
4. Jon Maia	769,0
5. Aitor Mendiluze	763,0
6. Amaia Agirre	739,5
7. Aitor Sarriegi	735,0
8. Jokin Uranga	731,5
9. Xabier Paia	728,5
10. Sustrai Colina	725,5
11. Arkaitz Goikoetxea	724,0
12. Fredi Paia	719,0
13. Jon Martin	719,0
14. Jexux Mari Irazu	717,0
15. Arkaitz Estiballes	712,0
16. Ekaitz Goikoetxea	712,0
17. Iñigo Mantzisor <i>Mantxi</i>	689,0
18. Etxahun Lekue	680,5

eginda, finalerako «pauso bat gertuago» dagoela zioen Aitor Mendiluzek, baina gauzak ez daude erabakita bere ustez: «Sorpresetarako tartea bada. Lehenengo hirurak nahiko seguru daukate, baina hurrengo hirurek egin beharra dute: atzetik ere fuerte daudela ikusi da, eta finalean egotea lortzekotan, bertsotan egin egin behar harko da», adierazi zuen.

Berak planteamendu berezirik ez omen du egingen hurrengo saioetara begira: «Beste saio bat gehiago da, eta ahal bada ona egitea da asmoa; hau da, saioari begiratzea, ez postuari», argitu zuen atzo. Hori hilaren 26an, larunbata, izanen da.

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Azaroaren 8ko 2005/1965zkie dekretuen bidez, Alkatetzak honako dokumentu hau tramitean jartzea erabaki du:

E.45 "Igaronda", L.6 "Elduarain" eta E.9 "Ibaralde" eremuen Arau Subsidiarioen aldaketaren aurreirakina.

Planeamendu Araudiko 125. artikuluko xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGETA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea.

Irargari hau Gipuzkoako alkizien ofizialean, Bernia, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen honetako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Espedientea, inork eztertu nahi badu, Udaletxeko Hirigintza Bulegoan egongo da (Plaza Zaharra, 6-b), aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2005eko azaroaren 8an
ALKATEA

TOKIA:
Eloroso Kiroldegia

EGUNA:
2005eko azaroaren 19an

ORDUA:
goizeko 9:00etan

IZEN EMATEA:
Telefonoz:
943 492 522
Egunean bertan:
9:00etatik
10:00etara

Antolatzailea

ADUNA ▶ KULTURA

Egitarau zabala antolatu dute Kultur Asterako

Mahai-ingurua, hitzaldia, antzerkia...; igandera arte, egunero hainbat ekitaldi entzuteko eta ikusteko aukera

ERREDAKZIOA

Adunako Kultur Astea abian da dagoeneko. Atzo ekin zioten sagardoari buruzko bi proiektorekin. Aste guztirako antolatu dituzte ekitaldiak: mahai-inguruak, hitzaldiak, antzerkiak...

Gaurkorako, kirolarien arteko solasaldia dago iragarrita. 20:00ean izango da, kultur aretoan. Igotz Alkorta ariko da moderatzaile lanetan, eta beren iritziak emanez, berriz, ESAI-Teko kide bat, Txomin Perurena txirindulari ohia, Aimar Iri-



Aralarri buruz hitz egingo du Iñaki Aizpuru Kultur Astean. © ESKITXABEL

goien harri-jasotzailea eta oraindik zehaztuta ez dagoen pilotari bat. Bihar Iñaki Aizpuru hitzaldia eskainiko du, *Aralar Tolosaldeko parke naturala* izenburupean, 20:00etan, kultur aretoan. Antzerkiaren tartea izango da osteguna. *Inaxitoren ametsak* bertso antzerkia ikusteko parada, beraz, 19:30ean, Elordi plazako aretoan. Musika-azalek ere badute beren ekitaldia. Ostiralean izango da, Uztartza aterpetxean, 22:00etan. Maelomiza saxo laukoteak —tarteen Mikel Eloia adunarra— Sax Dance ikuskizuna emango du, dantza eta musika uztartuz.

Larunbatean, Arabako Errioxara antolatu dute bidia. Atzo izena emateko epea bukatzen bazen ere, agian oraindik badago horretarako aukera, baina Uztartzara lehenbailehen joateko gomendatzen dute antolatzaileek. Igandean EHNA tramitatzeko aukera izango da, 11:00etatik 14:00etara, udaletxean. Arratsaldean, Poxpolo eta Mokolo pailazoan emanaldia eta, ondoren, barrikotea, gaztain jatea, taloak...

VILLABONA ▶

Oinkariren 30. urteurreneko ekitaldiak

Oinkari dantza taldeak 30 urte betetzen dituela eta, abenduaren 17an emanaldia eskainiko dute talde billabonatarrek eta Hiriburuko Leinua taldeak. Bestalde, abenduaren 18an, Oinkariko kide izan diren guztiek bazkaria egingo dute Sarasola sagardotegian. Izena emateko 660 13 93 80 telefono zenbakira deitu edo Ikastolako ganbarara joan behar da, astearte edo ostiral arratsaldetan.

ANOETA ▶

Lamiak taldearen ipuin kontaketa saioa, gaur

Lamiak taldeak ipuin kontaketa saioa egingo du gaur Anoetako liburutegian, 18:00etan, HH2 eta HH3ko umeentzat. Antolatzaileek puntualitatea eskatu dute.

AMASA ▶ JAIK

Jai giroaren jarraipena datorren igandean XIII. Mendiatioarekin

I. GARCIA

San Martin jaiek jarraipena izango dute datorren igandean, Amasako XIII. Mendiatioarekin. Proba 11:00etan hasiko da eta izen ematea —doan— aurretik egin daiteke. Partehartzaileek hasieran korrika eta gero bizikletan aritu behar-

du dute. Lehenengoi saria banatzeaz gain, opariak zozketatuko dira kirolarien artean. Ondoren, Zeanuriko Miguel Angel Goioagak eta Amasako Mikel Arretzek beren indarrak neurturen dituzte ingudean.

Aurreko asteke jaien balantze ona egin dute antolatzaileek. Igandean, eguraldi txarra-

rengatik asto lasterketa ez bazen egin ere, erremonte partidara jende ugari bildu zen. Bestalde, oso giro polita izan zen herritarren arteko herri kirolerako norgehiagokan.

Bestalde, jaiek buruzko argazki erakusketa ikusgai egongo da, hilaren 27ra arte, Kultur Etxean.



Herritar batzuk argazki erakusketa ikusten. I.GARCIA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@innosermio.com
www.innosermio.com

Alegia. 3 logela, sukaldea eta bi bainugela. Egoera oso ona. Berria bezala.

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.

Amezketak. Eraikuntza oso berria, 2 logela eta bi autoentzako garaje itxia.

210.355 euro.

Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 138.235 eurotik aurrera.

Tolosa. Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratza eta txabolarekin.

204.345 euro.

Tolosa. Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Bizitzan jartzeko moduan. 237.400 euro.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea,

egongela, bainugela. Guztiz berritua.

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Trastelekuarekin. 228.385 euro.

Tolosa. Sputnik. Duplex altua. Berritua.

Tolosa. Larramendi. 96 m². 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berrituko igogailuarekin.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoarekin.

Tolosa. Geltokialdea, Alberdi berrian,

garaje itxia alokairuan.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta 2 bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Erdialdean. Guztiz berritua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 306.517 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela.

Tolosa. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126 m²-ko etxebizitza berritua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua.

Tolosa. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabe! 4 logelako

etxebizitza ederra, garajearekin salgai.

Tolosa. Erdialdean. Eraikuntza nahiko berriko 2 logelako etxebizitza. Berokuntza eta igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean, 253 m² dituen lokala (bi solairutan banatua dagoena) salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Bidebieta. 38 m²-ko baxua alokairuan. 2 autorentzako.

Tolosa. Badoarekin.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin.

Oso egoera onean.

Villabona. Kale Berria. 30 m²-ko garaje itxia salmantan.

ZALDI LASTERKETAK ▶

Iñaki Izagirre asteasuarra, Gipuzkoako zaldunik onena

Asteasuko azken proban Axier Mujika zizurkildarra gailendu zen, baina Iñaki Izagirreri urte osoan pilotutako puntuek erabateko garaipena eman zioten

MARTA SAN SEBASTIAN

Etxean nagusitu zen Iñaki Izagirre eta horrelako garaipenek are politagoak izan ohi dira. Ederki daki hori Iñaki Izagirre zaldun asteasuarrak. Izan ere, hamaika hilabete lasterka aritu ondoren, etxean izan zuten Gipuzkoako zaldi txapelketan nagusitzeko aukera. Eta ez zuen aukera alferrik galdu. Hala ere, oso gertu, gertuegi, izan zuten Asier Mujika. Izan ere, igandeko azken lasterketa zizurkildarra irabazi zuen, eta 5 puntu eskuratu ahal izan zituen. Puntuaketa orokorrak, aldiz, bizkarra eman zion Asier Mujikari eta urte osoko erregularatasuna sarritu zuen; alegia, Iñaki Izagirre gaztearen lana.

Aurtengo sailkapen orokorrean berezitasun bat badago. Lehen hiru sailkatuak eskualdekoak dira. Lehena, Iñaki Izagirre izan zen, 30 punturekin; bigarren, Asier Mujika, 29 punturekin; eta hirugarren, Garikoitz Lasa bidaniarra, 18 punturekin. Millan Telleria albizuarrak ere txoko bat egitea lortu zuen Printzesa behorarekin, eta zortzigarren sailkatua izan zen Asteasun. Fin ibili dira, beraz, eskualdekoak.

Azkeneko proba jokatzeke esperoan, hiru zaldun berdin-durik zeuden; Pedro Joxe Saizar oriotarra, Igor Castañares elgoibartarra eta Aitor Odriozola oreretarra. Finala egin aurretik, beraz, hiru zaldun horiek berdinketa hausteko proba egin behar zuten. Aldiz, ez zen probarik izan. Aitor Odriozola ez zen lasterketara azaldu eta Igor Castañaresek zaldia



Euri azpian eta lokatz artean aritu ziren lasterkan zaldunak Asteasuko motokros zelaian. HITZA

zauritua egotearen zorte txarra izan zuen. Lasterketan ez parte hartu arren, joan zen eta Odei zaldiarekin ibilbideari bizpahiru buelta egin zizkion. Beraz, mesede egin zioten Gorri zaldia gainean aritu zen P. Joxe Saizar oriotarrari, eta Millan Telleria albizuarrarekin eta Xanti Telleria lasartearekin lehiatu zen kontsolazio txandean.

Ondoren, ohorezko txandak hartu zuen lekukoa. Iñaki Izagirre asteasuarra Fikus zaldiarekin, Axier Mujika zizurkildarra Lur zaldiarekin, Garikoitz Lasa bidaniarra Orkatz zaldiarekin,

Josu Lizaso oriotarra Baio zaldiarekin eta Hugo Virgala andoaindarra Arwin zaldiarekin aritu ziren lasterka. Josu Lizasok jokaldi makurra izan zuen eta zalditik erori zen. Ez zuen proba bukatzerik izan andoaindarrak. Lasterketan Axier Mujika iritsi zen lehena eta bost punturen irabazlea izan zen. Iñaki Izagirre ordurarteko liderra bigarren iritsi zen helmugara eta lau puntu jaso zituen. Hala ere, urte osoko erregularitasunak eta pilotutako puntuek zerbaitetarako balio dutela frogatu zuen. Sailkapen orokorrean, Iñaki Izagirre na-

gusitu zen Fikus zaldi gainean 30 punturekin, eta Axier Mujika zizurkildarra bigarren izan zen Lur zaldi gainean 29 punturekin. Garikoitz Lasa bidaniarra, aldiz, hirugarren izan zen.

Lehen hiru sailkatuen ondoren, P. Antonio Virgala izan zen Arwin zaldi gainean, 14 punturekin. Bosgarren postuan, aldiz, Josu Lizaso Baio zaldiarekin geratu zen, 13 punturekin. P. Joxe Saizarrek harekin berdindu zuen Gorri zaldiarekin. Ondorengo postuan ere berdinketa izan zen. Igor Castañares Odei zaldiarekin eta Aitor

SAILKAPENA ▶

1. Iñaki Izagirre	30 puntu
2. Axier Mujika	29 puntu
3. Garikoitz Lasa	15 puntu
4. P. Antonio Virgala	14 puntu
5. Josu Lizaso	13 puntu
6. P. Joxe Saizar	13 puntu
7. Igor Castañares	10 puntu
8. Aitor Odriozola	10 puntu
9. Millan Telleria	8 puntu
10. Xabin Gogorza	6 puntu
11. Iñigo Agirrezabalaga	4 puntu
12. Xanti Telleria	3 puntu

Odriozola Sflin zaldiarekin 10 puntu bana lortu zituzten. Bederatzigarren postuan Millan Telleria geratu zen Printzesa behor gainean eta 8 punturekin. Hamargarren Xabin Gogorza 6 punturekin, hamaikagarren Iñigo Agirrezabalaga 4 punturekin, eta hamabigarren Xanti Telleria 3 punturekin.

Gipuzkoa osoan jokatu diren lasterketetan guztira 22 zaldunek parte hartu dute denboraldi osoan, baina azken proba erabakigarrian ez zuten guztiek parte hartu. Igandean asteasun 8 zaldunek parte hartu zuten. Xabin Gogorza, Aitor Odriozola eta Iñigo Agirrezabalaga ez ziren azaldu lasterketara, esaterako. Igor Castañaresek zaldia min hartuta zegoela eta ez zuen proban aritzerik izan. Hala ere, zaldia elbarriturik zuela, jendaurrean erakustaldixoa egin zuen.

Behobia-Donostia lasterketaren eguna ere bazen igandean. Eguraldi kaskarra ere izan zuten. Antolatzaileak beldur ziren jendearen erantzunarekin. Hala ere, Asteasuko motokros kanpara jende dezente joan zen. Sementalen erakusketak izan zen eta askotariko zaldiak ikusteko parada izan zen. Honez gain, Iñaki Toloxa bere karroarekin ere han izan zen, jendea ibilalditxoak emateko prest.

Gipuzkoako zaldi lasterketen finala, beraz, arrakastatsua izan zen. Hurrengo urtekoak prestatzen ere laster hasiko dira ziurrenik.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, lege berriaren arabera, lantegietan ezin izango da erre. Halaber, zenbait tabernetan erretzaileentzat egokituriko guneak jarri beharko dituzte. Zer iruditzen zaizu? Gure web gunean gai honen inguruan zure iritzia emateko aukera duzu, anima zaitetz!

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Berrituriko etxebizitza salgai. 3 logela eta sukalde handiarekin. Oso argitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.
Tolosa. Eraikuntza berria. 100 m²-ko etxe handia. Egongela, sukalde, hiru logela eta bi komuna. Garajea ere badu, oso polita da. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Eraikuntza berria. Egongela, sukalde, hiru logela eta bi komuna ditu eta oso eguzkitsua da. Berri-berria dago.

Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Atiko berria terrazarekin. 30.000.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosalde. Baserrira salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Legorreta. Hiru logeladun etxea berrizteko. Igogailua du. Etxesagasti. 943 69 68 56
Lizartza. Baserrira berritua, lursailekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezket. Banakako baserrira, berritu beharrekoa. Lursailak ere bai. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Amezket. Elkarri atxikitako etxe berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan
Tolosaldean.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Lamiak taldearen ipuin kontaketa. 18:00etan, liburutegian.

Ibarra. Bizi Nahi jubilatuta elkarteak irteera antolatuta du Almandozera (Nafarroa) hilaren 26an. Izen-ematea, elkartean, 11:00etatik 13:00etara, 25 eurotan (bazkaria barne).

Tolosa. 1943ko kintoek beren eguna ospatu nahi dute azaroan. Eguna eta xehetasunak erabakitzeko bilera egingo dute gaur Fronton kafetegian, 19:00etan.

Villabona. Behar Zana kirol elkarteak 2006-07rako mus eta tute txapelketak antolatuta ditu. Izen-ematea zabalik da, elkartean.

HITZALDIAK

Aduna. Kirolariaren arteko solasaldia: ESAITeko kide bat,

Txomin Perurena bixirindulari ohia, eta Aimar Irigoien harri-jasotzailea, besteak beste. Moderatzaile: Igotz Alkorta. 20:30ean, Kultur aretoan. Kultur Astearen baitan. **Aduna.** *Aralar, Tolosaldeko parke naturala.* Iñaki Aizpuruaren eskutik. Bihar, 20:00etan, Kultur aretoan. Kultur Astearen barruan. **Tolosa.** Mikel Garaikoetxea goi mendiko irakaslea segurtasunaz mendian ariko da. 20:00etan, Oargi mendi elkartean. Mendi Hamabostaldiaren barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Tolosa. Olarreaaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Inkomunikazio ikastaro azkarra Baliarrainen

BALIARRAIN ▶ *Laster Master inkomunikazio ikastaro azkarra* eskaini zuten pasa den ostiralean Kike Amonarrirek eta Antxon Olariagak Baliarrainen, Kultur Elejiraren baitan. Telefono mugikorrei buruzko hizkuntza izan zuten hizpi-

de biek umorezko saioan, eta ikusleek barre algarekin erantzun zuten. Bukaezan, inkomunikazio teknikari tituluak banatu zituzten, University of Deu-ek emanak. Aste honetan ere egongo da zer ikusirik Kultur Elejiran. JOXEMI SAIZAR

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Juan Bautista eta Manuela (Lizartza).

Gaur 58 urte ezkondu zinetela. Zorionak, bikote. Ondo pasa, familia guztiaren partetik.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behean
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez,
argozkia
bi egun
lehenago
ekarri.
Mila esker!



Jabier Muguruzaren 'Abenduak 29', zuzenean


TOLOSA ▶ Jabier Muguruza musikari irundarrek zuzeneko emanaldia eskaini zuten ostiral gauean Kultur Etxeko taula gainean. *Abenduak*

29 bere disko berriaren kantak ekarri zituen Tolosara, eta aurreko lanetako doinuak ere izan ziren entzungai. JOXEMI SAIZAR

hitza **txokoa** lagunen

▶ HITZA harpidedunen artean...

...POXPOLO, MOKOLO TA KONPAINIAREN
"Eskola ta festa" 10 DVD zozketatuko ditugu.
Zozketan parte hartzeko deitu: 943 65 56 95 telefonora.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero